


Astekaria

# BARREN

elgoii

## 40 elgoibartar saltaka Behobia - Donostian



eirt **COGORATU**,...: **SIMALDE IKUSGARRIAK** f

**ete.**

Banatzaille oficiala

FAGOR **3**


•• ERREBAL 15, BEHEA. TF: 70 24 8 EIBAR • TRENBIDE 23, BEHEA. TF: 74 37 87 - ELGOIBAR



# BAR-TXIKI

## EDARI BANATZAILEA

ffzr 740503



elgoiBARREN  
Nafarroa enparantza 2  
Er 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko tzarra.

LAGUNTZABIA:

Elgoibarko

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegt,

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhaa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATLAILEAK:

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansoa, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Gui116, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Lorrana, Imanol Iarrariaga, Raritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iitaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Aioin Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villosante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Iarrariaga

INPRimAregla:

Gertu koop. E.

(Zubillaga


TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1 133-021 X

elgoiBARENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## ZENBAT BURU



ifAINBAT ABURU

# Zaharrak berri

**A**tsedenik gabeko mugimendu orokor honetan, bagoaz guztiok aurrera eta aurrera. Egunoro ikusten ditugun pertsonengan, ez dugu nabaritzen aldatzen ari direnik, baina, hamar-hamabost urtetan ikusi ez duzun pertsonari buruz esan ohi dugu, urlia zenbat zahartu edo aldatu den, nahiz eta berari, "batere ez zara zahartu" edo antzerako leunkiari esan. Berak ere berdintsu hitzegingo digu.

Eta, zer esan herri eta etxaldee buruz? Guk ezagutu genuen 36ko Elgoibar eta gaurko Elgoibar nola alderatu? Non ziran Labaderuak, Toletxe, Artetxe -zorrotzaile eta euritako-konpontzaileen ostatu-Pepeingoa, Doña Pacaren Iaranja-limoiak? Non Goiko-Errota? Non Maalako perratokia?

Oso bitxia izango litzateke, Eguzki-Ilargi-Lurraren eklipseak bezala noiz behinka, lehenengo herria eta bazterrak ikustea. Benetan txundituta geratuko liriteke garai hartako Elgoibar ezagutu ez zutenak eta ezagutu genuenok ere izango genuke nahikoa harridura.

Kontu izan 36. urtea baino askoz geroago ere, San Frantzisko-San Bartolome kaleen erditik zebiltzala garaiko garraigailu guztiak. San Bartolome jaietan, Plaza Haundian pelota partidua jokatzean eta errepedea

aulkiekin zeharkaturik, pelotariak tantoa bukatu arte itxaroten zuten garraiolariak. Gogoratzen naiz egun batez, tantoa bukatzeko astirik gabe, trafikoko motoristek nola aulkia altxa eta pasatu nahi izan zuten eta lehenengo aulkia pasa ere bai, baina, bigarrena pasatzen ez zien utzi, garai hartan alkate zen J. Rezolak. Han geratu ziren aulki bien erdian pelotariei begira. Gero istiluak motorista eta Rezolaren artean.


Baina, 36. urte inguruko kontuekin ari garenez, ondoren dioguna gogorarazi edo azpimarratu nahi nuke. Besteak beste, 36ko gudatean, Azkarate inguruan, egun bateko tiroketa izan zen eta gutxienez hiru hildako suertatu ziren. Hiru hauen gorpuak, non lurperatu zituzten gutxi gora behera badakigu, eta, orain arte inor mugitu ez bada ere, nik proposatzen dut dagokionari erregutu eta, beste herri askotan egin duten bezala, ponpa gehiago edo gutxiagorekin, behar den tokira gorpuak eraman ditzaten. Ez gara arazo honen arazoia filosofatzen hasiko, besterik gabe egin beharreko arazoa dela uste dugu eta.

Norbaitek laguntza eskatuz gero, gertu egongo gara, ahal dugun mailan laguntza hori emateko.

Hala bedi.

**Felix Etxeberria**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*







**A**ste honetako erretratu Rafael Areitioaurtenak laga digu. 1951. urtean San Lorentzo auzoan ateratakoa da, abuztuaren 10ean, hain zuzen ere. San Lorentzoko jaietan korrika lasterketa antolatzea ohitura zela esan digu Rafael. Ikus dezakezuen bezala, lasterketa honetara ez zen Behobia-Donostia frogara beste jende joaten

baina, hala ere, izango zuen bere "enkantua". Behobia-Donostian zazpi mila pasa izan diren bitartean, San Lorentzon zazpi baino ez ziren animatu. Orduan ere, jendeak nahiago izaten zuen parte hartzea baino bazterretik begira egotea. Zeintzuk diren zazpi korrikalariak?


Ezkerretik hasita: Jose Garitagoitia, Agustín Garitagoitia, Jose Urresti (+), Francisco Mugerza, Fermin Arrese, Rafael Areitioaurtena eta Juan Maria Etxeberria.



**Salvador Celaya**

ITURGINTZA  
BILTEGI ETA BAINUGINTZA  
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94



**DEKORAZIOA**

PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

# A FIC) r- C2-4L r- elkarlanean

Nekazal gune diren auzuneetan, indarrez mantentzen dira oraindik herri urbanoetan zeharo galdu diren hainbat usadio, kontzeptu edota sentimendu. Horietako bat auzotar izatea da. Baserritarren bizimoduan auzotar izateak berebiziko garrantzia du. Baserritar bati nongoa den galdetuz gero, lehendabizi hemengo edo hango auzokoa dela

erantzungo du, bertan jaio eta bertan bizi baita. Herria bigarren mailan geratzen da. San Rokeko, San Migeleko, San Lorentzoko, Urruzunoko, San Pedroko eta San Antolineko biztanleen kasuan ere, antzerako zerbait gertatzen da. Auzoan bizi zaizkizue gain, auzoaren alde egiten dute lan, auzotarrak elkarlanean aritzen dira, auzolanean alegia, egoerak hala eskatzen duenean.

**1** herriko auzune gehienetan gauza mordoa egin izan dira auzolanean. Garai batean baserritarrek, beraien artean auzolanean egiten zituzten pistak edo bideak. Gaur egun, San Migel auzoan eta Urruzunon, auzotarrak urtean behin edo, elkartu egiten dira baserrietako pistak garbitzeko. Azken boladan San Rokeko auzotarrak aritu dira ermitako lokala berritzen eta auzokoentzako lokal sozial bihurtzen. Joan den asteburua inauguratu zuten ofizialki lokal sozial eraberritua, herriko eta auzoko alkateen presentziaz eta auzotarrak lekuko zirelarik. Unea gogorarazteko, plaza aldera ematen duen horman plakatxo bat desestali zuten eta ondoren, berritutako lokalean anaiarteko bazkaria egin zuten.

Auzoa bizirik dagoen adibide da auzolana. San Rokeko ermitako lokala konpondu dute euren arazoak bideratzeko, bilerak egiteko eta auzoko gorabeheren artean hitz egiteko toki apropos bat edukitzea nahi zutelako. Udalak eta Deba Behoko Mendi eta Nekazaritza Elkartek, bien



San Roken lokal soziala inauguratu zuten joan den larunbat eguerdian.

artean bost milioi inguruko diruaz lagundu dute. Hala ere, zenbait gauza bukatu gabe geratu dira, dirua ez delako dena konpontzeko iritsi. Azken berrikuntzak duela 25 bat urte egin ziren. Lanean aritu diren gurasoak jardun zuten auzolanean orduan ere lokala konpon-tzen. Orduan egurrezko hormen ordean porlanezkoak jarri zituzten eta harrez geroztik ez da inolako berrikuntzarik egin gaur arte.

.....  
**Diru laguntzak errazago lortzen dira elkarte sozialaren bidez eskatuz gero**  
 .....

### Auzotar guztiak lanerako prest

Aurtengo udan lanari ekin zioten. DEBEMENek bi ofizial, igeltsero eta iturgin bana kontratu zituen. Auzoko alkateak tramite guztiak konpondu eta auzotarrak lanerako jarri zuten. Bakoitzaren abildadeen arabera banatu zen lana, batzuek igeltseritzan, beste batzuek peoi, beste batzuek arotz lanetan... denentzat egon ohi da zereginik. Emakumeek ere badute leku bat horrelako eginkizunetan:

## AUZOLANEAN EGINDAKOAK

azken garbiketa eta atonketa hauen esku geratu ohi da.

San Rokeko elkarteak, auzorako lokal sozial bihurtu dute. Berritutako lokalari zati bat gehitu zaio eta horrez gain, den dena konpondu egin dute; sukalde eta jangela ederrak ditu orain. Normalean auzotar guztiek laguntzen dute horrelako eginkizunetan. San Roketarrek esaterako, guztiek erakutsi dute lanerako borondatea. Baten batek ez badu parte hartu, ez da borondaterik falta izan zaiolako, bestelako arrazoiengatik lagundu ezin izan duelako baino.

Elkarte soziala edukitzea oso garrantzitsua izan ohi da auzoarentzat. Edozein gauza konpontzeko, bideak egiteko edota basoak garbitzeko, auzotar guztien izenean, hau da, elkarte sozialaren bidez eginez gero errazago lortzen dira laguntzak.

### Ermitaren berrikuntza

Datorren urterako asmoa San Rokeko ermita auzolanean konpontzea da. Zolua bota, falta den teilatu zatia konpondu eta itxura berria ematea litzateke asmoa. Udalak edota Aldundiak Kultur Sailaren bidez, diru laguntza eman go luke konponketa egiteko.

### Urruzuno

Urruzuno auzoan lokal soziala eginda dago, auzolanean hau ere. Azken iku-



Sallobenten ur homidura auzotarrek egin dute. Erretegia ere modu berean egiteko asmoa dute. San Migelen, berriz, eliza, elkarte eta frontoia bertokoek eraiki zituzten. Urruzunoko elkarteak auzotarrek elkarlanean eraikitakoa da eta San Rokeko elkarteak beste horrenbeste.

tuak baino ez zaizkio falta elkarteari. Martxan jartzeko ur horniketa egin beharra dute. Bertatik, auzotik lortutako ura ez omen da edateko modukoa, metal ura omen da. Horregatik herri-  
tik eraman beharko dute. Behin uraren arazoa konpondu eta gero, elkarteak martxan jarriko dute.

### San Lorentzo

San Lorentzo auzoan Karakate ingurutik ekarritako ur horniketa egin zuten iaz. Auzotarrek zanjak zabaldu zituzten eta bertako elkarteraino eta beste hiruzpatalau baserritaraino eraman zuten ura. Asmoen artean, elkarterako erretegi bat, haurrentzako lokaltxo bat eta komun publiko bat egitea daude.

### San Migel

San Migeldarrak auzolanean eredu direla esan liteke; auzo moduan, gaitontzekoek baino aurrerapausu gehiago eman dituzte. Honen adibide dira auzolanean egindako hainbat proiektu. Iaz berrinauguratutako Murkaikupe frontoia auzotarrek egindakoa da. Ez hori bakarrik, eliza ere auzotarren jabetzakoa da. Duela mendernordo bat auzotarrek lurak erosi eta bertan eraiki zuten eliza. Horrez gain, San Migeldarrek elkarte gastronomikotik aparte, lokal soziala ere badute. Bertan haurrentzako liburutegi txiki bat omen dago.

# Fotere

**OKINDEGIA  
OPILDEGLIF**

San Frantzisko, 4  
74.07.35

JOSE ANGEL ZABALA

## URDA1TEGIA

**Berezitasunak:**

**Bakilaua**

**Txerrikiak**

Merkatu Plaza 33-34

## INTERIORES

- SUKALDE ETA BAINUAK
- PROIEKTU ETA ERREFORMAK
- DEKORAZIOA ERREGALUAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.

## Maria Urizar

**ileapaindegi  
mixtoa**

Errosario 9-1 ezk.

74 44 89 ELGOIBAR

**UDA BERRI  
ELGOIBAR**



**MZELUMOO**n,

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- \* IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN BIRREGILEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAX

# Zergen araudia 95

dalak 94-10-27an izandako plenuan, zergen %4,9ko igoera, 93ko IPCari dagokiona, onartu zuen.

Zergen gaurkotze hau, herritarrei zerbitzu berdinak eskaintzen dizkien eta antzerako egoeran dauden inguruko udalerrien maila berean egin dugu. Herritarrentzat beharrezkoak diren zerbitzuak eskaini behar ditu Udalak: ura, zabor-bilketa, kale-garbigeta, hilerria, estoldak, e.a. Eta lehentasunik izan ez arren, herritarren bizimodua hobetu dezaketen zerbitzuak ere bai: Herriko Antzokia, Mintxetako Udal Instalazioak, Kiroldegia, azoka, e.a.

Zerbitzu hauen artean bereizketa bat egin behar dugu: alde batetik Udalak zuzenean eskaintzen dituenak, eta bestetik, Deba Beheko Mankomunitateak bideratzen dituen zerbitzuak, hala nola, zabor-bilketa eta kale-garbigeta. Udalak diru kopuru bat ordaintzen dio mankomunitateari lan hau egiteagatik.

Beste zerbitzu batzuk, ur hornidura, esaterako, mistoak dira. Uraren hornikuntzaz Udala eta Ur Patzuergoa deritzon erakunde publikoa arduratzen dira. Gipuzkoako beste herri asko bezala, gu ere erakunde horretako partaide gara 94. urtetik aurrera. Kilimonetik Elgoibarko depositura ur garbia ekartzeagatik 35.428.708 pta. kobratu dizkio Ur Patzuergoak Elgoibarko Udalari. Gastu honetaz gain, 95etik aurrera, Gipuzkoako ibailetako ur garbigeta lana egiteko Azpiegitura Hidraulikorako kanon bat ezarri du Ur Patzuergoak, eta datorren urtean elgoibartarrok 13.646.450 pta. ordaindu behar ditugu. Hori dela eta, 95eko ur errezi-boetan kontzeptu berri bat agertuko da:

\*Etxeko kontsumoa: 52 pta/m<sup>3</sup>, gutxienez 30 m<sup>3</sup> hiruhilabetero.

\*Industriarako kontsumoa: 92 pta/m<sup>3</sup>,

gutxienez 18 m<sup>3</sup> hiruhilabetero.

\*Iraupeneko kuota: 720 pta/hiruhilabetero.

Saneamendu kuota:

\*Etxeko kontsumoa- 10 pta/m<sup>3</sup> fakturatua + 160 pta/ hiruhilabetero.

\*Industriarako kontsumoa- 22 pta/m<sup>3</sup> fakturatua + 320 pta/hiruhilabetero.

Zergen araudiak bere barne hartzen ditu ondorengo zerga eta tasak:

A. DERRIGORREZKO ZERGAK:

- Hiri ondasun eta ondasun errustikoen zerga.

- Iharduera ekonomikoak.

Trakzio mekanikodun ibilgailuak.

B. BORONDATEZKO ZERGAK:

- Eraikuntza, instalazio eta obren zergak.

- Hirilurren balioaren gehikuntza.

C. ZERBITZU PRESTAKUNTZAGATIK PREZIO PUBLIKOAK:

Ur hornikuntza, azoka, Mintxeta, Kiroldegia.

D. GUZTIONAK DIREN ONDASUNAK ERABILTZEAGATIK PREZIOAK:

Ibilgailuen sarrera, ibiak, mahai eta aukiak, lurraren erabilpen berezia, lurpea eta ibilbideak e.a.

E. TASAK: Zabor-bilketa, estoldak, hilerria e.a.

Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta ekintzak, herritarren bizimodua hobetzeko egin izan dira beti, eta horregatik berrikusi da zergen araudia.



**MERTXE MUGIKA**

Udal Hazienda Batzordeko Lehendakaria

## KEMEN klity>Belardenda

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN  
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA  
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 25, Tel: 74 40 **31)**



# Zer dion zergen igoeraz?



**M. CARMEN URZELA**  
49 urte, inbiliariaiko langilea

Uraren kalitatea igoko balitz, gehiago ordaintzea mereziko lukeela uste dut baina inbertsiorik egin gabe, herriko egoera ikusita %20a igotzea gehiegi da.



**MANOL RODRIGUEZ**  
42 urte, mekanikoa

Egoera ikusita, oso gaizki; gehiegikeria bat da. Eurak ondo irabazten dute eta gure soldatak ez dira neurri berean igotzen. Igotzekotan, IPCaren arabera.



**J. MANUEL ARANBERRI**  
48 urte, administraria

Pasatu egin dira apur bat. Zergak beharrezkoak dira baina Ondarrun esaterako, zergen %62a soIdatentzat da, hemen kontu hori nola dagoen ikusi behar.



**MARI CARMEN ROSA**  
34 urte, etxeoandrea

Ez zait bidezkoa iruditzen. Zergak igotzea ulergarria litzateke soldatak ere neurri berean igoko balira, baina gero ez da hala gertatzen.



**SONIA ARRIOLA**  
25 urte, optikoa


Inpuestu gehixegi ordaintzen dia. Gainera, merkatarixeri gehixo afektatzen digu, optikan diru asko juten jaku. Gainera, gero ez da kalian erreplejatzen.



**MANOL AJURIA**  
78 urte, jubilatua

Ez zait gustatzen igotzerik. Biharrekuia izango da baina gero poltsikuan igarri eitzen dou. Gauzak eingo dabez baina gehixo biharko da akaso.

**9 umirorim**



## JUARISTI Aroztegia

Egur-aluminiozko UNIFORM leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

Ez dauka mantenu beharrik

IN Haizea eta urarentzat isolatua

Kolore efektu ikusgarriak

Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:  
Ubitarte, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:  
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

## ■ Karakatera igoera larunbat honetan

Urgazi Triathloi Taldeak eta Morkaiko Mendizale Elkartek Karakatera igoera antolatu dute. Irteera larunbat honetan, goizeko 10,30etan izango da Plaza Handitik. Korrikalariak irtera ordua baino bost minutu lehenago egon beharko dute bertan. Lasterketa honetarako ikusnirin handia sortu da, Mantxillaren errekorra hausteko asmoa baitute zenbait korrikalariak. Errekor berria 33 minutu ingurukoa izan daitekeela diote adituek. Saltaka ezezik, oinez ere egin ahal izango da lasterketa, bakoitzak nahi duen ibilbidea aukeratuz. Lasterketa Karakateko buzoian bukatuko da.



## ■ Taldeko lanari buruzko hitzaldia 1MHan

Gestio Eskolak antolatuta, hil honen 24ean, osteguna, "lan sisterna taldean" izenburupeko forum-a izango da Erreminta Makinaren Institutuko areto nagusian arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean. Espainiako Opel auto etxearen esperientziaren berri emango dute "Opel Espaila"ko pertsonal zuzendariak Jose Luis Marquez-ek eta enpresa batzordeko presidentek, Fernando Boleak. Gestio Eskolak gaiari buruz interesa duen oro ekitaldira joatera gonbidatu nahi du.

## ■ Euskal jai eta jantziei buruzko hitzaldia

Haritz Dantzari Taldearen 20. urteurrena dela eta, Udal Kultur Zerbitzuaren eta Foru Aldundiko Ikerfolk elkartearen lankidetzarekin, jantzi herrikoiei eta jai tradizionalei buruzko hitzaldi bat izango da hilaren 30ean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bertan jantzi ezberdinak ikusi ahal izango dira eta jantziak egiteko era ezberdinak ere erakutsiko dituzte. Saioa iluntzeko 8etan hasiko da.

**Gurutze Gorriak** 110.495 pta. biltzea lortu zuen joan den igandean Plaza Handian egin ziren lau txanpon ilareei esker. Dirua minbiziaz jota dagoen Altsasuko Joseba Elizegiren tratamendua ordaintzeko erabiliko da. Dagoeneko, Joseba EEBBetan dago tratamendua jasotzeko prest baina oraingoz ezingo du tratamendua jaso, ez delako nahikoa diru bildu. Horregatik kontu bat ireki da Kutxan nahi duenak bere donazioa bertan sartzeko. "Joseba Elizegiri laguntza", 00. 103 84 428 kontu zenbakia.



**Ikastolako 6. mailako 55 ikasle** izan ziren joan den ostiralean BARRENen bisita egiten. Prentsaren mundua jorratzen ari dira gelan eta onena gauzak lekuan ikustea denez, BARRENen nola egiten dugun lan ikustera etorri ziren. Funtzionamenduari buruzko azalpena jaso ondoren, taldeka, BARRENen bulegoa bisitatu zuten, beraien begiz aldizkariaren martxa ikusi ahal izan zutelarik. Bisitaren momenturik emozionanteena, noski, argazkia ateratzeko unea izan zen.



**Elgoibarko Antimiliak** azoka plazako azken solairuan itxita egon ziren joan den astebukaera guztian zehar, Estatuko gartzeletan gose greban dauden 50 intsumisoekin elkartasun modura. Gose grebari amaiera emateko larunbat honetan, hilak 19, manifestazioa izango da Donostian, gobernuaren politika salatzeko. Elgoibarko Talde Antimilitaristak autobus bat antolatu du manifestaziora joateko. Larunbatean arratsaldeko 4,30etan irtengo da Plaza Handitik. Joatea nahi dutenek nahikoa izango dute ordurako Plazan agertzearekin. Bidaia doan izango da.



**Galiza Etxeak Festa Do Magosto** ospatu zuen joan den igandean egun guztian zehar. Orenseko Verin herritik ekarritako 300 kilo gaztaina erre zituzten egun guztian zehar eta dohainik banatu zituzten gaztainak eta ardoa bertara urreratu ziren guztien artean. Eguraldi eguzkitsua eta jendearen joan-etorriak egun osoan zehar giro epela eta alaia izaten lagundu zuten.

## ■ Gestorek antolatutako presoen omenezko ekintzak

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeek zenbait ekintza antolatu dituzte hil honen 24an, 25ean eta 26an Elgoibarko presoak gartzelan daudenetik 10 urte pasa direla gogoratzeko. Hilaren 24an "La frontera" filmea, Hego Ameriketako zenbait herrialdetan bizi duten egoera politikoari buruzko errebasua ematen duen pelikula proiektatuko da gaueko 22,15etan Herriko Antzokian. Ostiralean, hilak 25, Torturaren Aurkako Taldeetako mediku batek presoek egotzen dituzten egoerari eta torturari buruz hitz egingo du Kimetz elkartearen arratsaldeko 19,30etan. Larunbaterako, hilak 26, jaialditxo bat antolatu dute Maalan. Arratsaldeko 6etan hasiko den saioan Gozategi trikitilariak eta bertsolariak arituko dira. Jarraian, 19,30ak aldera, 10 urte gartzelan daramaten herriko presoek omenezko ekitaldia hasiko da eta 20,00etan manifestazioa burutuko da Maalatik hasita.

## ■ Gipuzkoako oilagorren ehiza txapelketa

Datorren igandean, hilak 27, Gipuzkoako oilagorren txapelketa burutuko da herri ezberdinetan. Txapelketan ehiztari orok hartu ahal izango du p:trte. Ehiztari bakoitzak ordezhari bat eraman beharko du, biak federatuak egon beharko dutelarik. Ehizatutako oilagorrek La Union elkartera eraman beharko dira bertan ezarriko baita kontrola. Txapelketa baino egun bat lehenago zozketa egingo da, hilaren 26an hain zuzen, arratsaldeko 8etan La Unionen egoitzan.

**Angel Ibarluzea:****"Filipinasen, visalla hizkuntzan euskal hitz bat dago"**

**16 urte zituenean Murua, Garate "Katalotza", Etxaniz eta Zabalarekin zesta puntan hasi zen jolasten Plaza Haundiko frontoian. Alikanten jokatu zuen lehen aldiz profesional bezala. Palma de Mallorkan soldadutza egin eta Italiara joan zen, pelotan jokatzerara. Bi urte pasa**

**eta lesio bat izan zuenean itzuli zen. Hurrengo Filipinasera aldegin zuen. Urte beteko kontratua egin zioten printzipioz baina 30 urte daramatza dagoeneko. Angel Ibarluzea bertan ezkondu zen. 54 urte dituen elgoibartar hau Cebu City-n bizi da, jatetxe bat dauka bertan.**

**- Pelotari izatetik ostalaritzara.**

- Bai. Puntista bezala aldegin nuen hara eta urte askoan jokatzen ibili nintzen. Baina, lege martziala jarri zuten Filipinasen eta frontoia itxi zuten Manilan. Cebun *Jai Alai* frontoia ireki zuten eta bertara joan nintzen... Baina denborarekin pelota utzi eta jatetxea ireki nuen emaztearekin.

**Bizitza maila oso bajua da, ez?**

- Bai, oso. Ez dauka zerikusirik hemengo bizimoduarekin. Han, gasolinak adibidez, 50 pta balio du litroak eta arrainak 360 pta. Langile batek 15.000 pta irabazten ditu hilean. Okela oso garestia da, ez da apenas jaten eta ogia beharrean, arroza jaten da janariaren lagungarri bezala.

**- Halere, nahiago duzu hango bizimodua.**

- Ni oso gustura bizi naiz han. Bertako klima oso atsegina da, ez dauka hemengo hotzik. Han ez dago negurik. Euria egiten duen garaia dago baina gainontzean beti epel, hondartzara egunero. Hori bai, lurrikarak izaten ditugu eta demaseko hai-



**"Filipinar bakoitzak 600:000 abizenek osaturiko zerrenda batetik gehien gustatzen zitzaiona aukeratu zuen".**

zeak. Orain urte batzuk 150-70 km-ko abiadurako haizeak egon ziren. Hura itzela izan zen, beldurgarria. 40 urtetik behin egoten diren haizeak omen dira. Industria gutxi dago, gehienak nekazaritzatik bizi dira, azukrea landatzen da asko. Baina Elgoibarre ahal dudan guztietan etortzen naiz bisita egitera.

**- Euskaldun asko dago, ezta?**

- Bai, asko. Badira bi hiru abizen euskaldun dituzten filipinarrak ere. Halere, orain mende asko

filipinoek ez zuten abizenik, izenez eta gaitzizen batez deitzen zitzairen, Juan "el tuerto" eta antzekoak. Declaveria gobernadorea boterean zegoela, jende guztiak abizena izan behar zuela esan zuen. Horrela, 600.000 abizenek osaturiko zerrenda bat bidali zuen udaletxe guztietara. Nahi zuenak, udaletxera joan eta zerrendatik abizen bat aukeratu zuen. Hortik datoz gaur egungo abizenak.

**Nolakoak dira ak?**

- Txinoenak dira jabetzarik handienak. Ernaku-meia oso umila da, etxean egoten da. Gizonak, berriz, oso gonazaleak dira eta oso arrunta da emazteaz gain bi edo hiru amorante izatea. Horrezaz gain oso superstiziozkoak dira, oso. Lagun batek behin etxebizitza bat eraiki nahi zuen baina eraiki nahi zuen tokiaren parean beste etxebizitza bat zegoen eta bien artean elektrizitate poste bat. Poste hura mugitu arte beste ezer ez zuela eraikiko esan zuen, zorte txarra ematen baitzuen.

**- Italiano eta ingelesa dakizkizu. Baina zein hizkuntza erabiltzen da Filipinasen?**

- Bertako hizkuntza ofiziala tagaloea da baina ni irla batean bizi naiz, Cebun. Bertan, visalla hitzegiten da. Halere, seme alabekin gaztelaraz hitzegiten dut. Visalla hizkuntzak euskal hitz bat dauka. Gogoan daukat nola aitagi-narrebak askotan erabiltzen zuten "burruka" hitza. Behin, hitz harek zer esan nahi zuen galdetu nion eta berak, "lucha" erantzun zidan. Hara, visalla hizkuntzak euskal hitz bat duela jakin nuen.

# Zaharreak B RRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 8. GEHIGARRIA



**A**rratsaldero hainbat eta hainbat herritar biltzen da Zaharren Biltokian. Bertan, lagunartean egoteko tartetxoak izaten dute, txatxaran edo karta jokuan, kafetxo bat hartu eta egunkaria lasai irakurri... Oraingo honetan, gainera, badute bestelako ikuskizunik ere. Izan ere, biltokiko ormak koadro ezberdinez

josiak daude aspaldi honetan. Maribel Vazquez elgoibartarraren hiru koadro daude bertan ikusgai. Hiruak salgai daude gustuko dituen norbaitek erosi nahi baldin baditu. Abendura arte izango da Maribelen txanda eta ondoren, hilaren 12an, Jubilatuen Astea ospatzen denean, Luis Pradok 20 margo aurkeztuko ditu.

## MOTZAIS /444)1'7411S MIDIZAIS MCIZAIAK

### ■ Baionara txangoa

Hil honen 23an Baionara txangoa egingo da Zaharren Biltokiak antolatuturik. Irteera Plaza Handitik izango da, goizeko 8,15etan. Lehen geldu-nea Irunen egingo da, bertan gosaltzeko. Ondoren, sendagaien erakusketa egongo da eta pasiaratxo bat eman nahi duenak ere izango du aukerarik. Bazkaria ere Irunen bertan izango da eta ostean Baionarantz abiatuko dira. Iparraldeko hiri horretako katedrala bisitatuko dute eta denbora libre izango da hala nahi duenak hiria ezagutu dezan. Elgoibarrera buelta arratsaldeko 7ak al-

dera izango da. Izena emateko Zaharren Biltokira zuzendu behar da goizeko 10etatik 12etara bitartean.

### ■ Jubilatuen astea

Abenduaren 12tik 18ra jubilatuen astea ospatuko da Zaharren Biltokian, urtero bezala. Oraindik ere ekintza guztiak zehaztu gabe egon arren, badira zenbaitzu hementxe aurrera ditzakegunak. Besteak beste, hilaren 14an 80 urtetik gorakoz bazkaria izango da bai eta aurten urrezko eztaiak ospatzen dituztenentzat ere. Era berean, mahai-jokuen txapelketa bat antolatu

dute. Ohi denez, txokolatadarik ez da faltako egitarauan. Gainera, jai guztietan oinarritzkoa den dan-tzaldia izango da.

### 11 Dantzaldia Zaharren Biltokian

Azaroaren 27tik aurrera, igandea, arratsaldeko 6,30etan hasita, dantzaldia egongo da Zaharren Biltokian Gelatxo taldearen eskutik. Dantza egiteko aukera egoteaz gain, atsedendian zozketa bat egingo da, hainbat sari banatuko direlarik.

# MODESTO MUJIKAK eta ARANTXA LARRAÑAGA: "Urbian egon ginan ezkoniza bidaiari"

Arantxa Larrañaga plaentxiarra da eta oso gazte zela anaiarekin hasi zen mendiak egiten. Modesto Mujikak, berriz, futbola zuen gustuko gaztaroan. Halere, "futboletik jatekorik ateratzerik ez nakanez, laga eta denbora librian mendira juten hasi nitzan lagunekin". San Bartolome jai batzutan ezagutu ziren eta biek afizio berbera izanik, elkarrekin hasi ziren Euskal Herriko gailurrak egiten. Ezkontza bidaiako 28 egunak ere Urbian igaro zituzten. 65 urte dituzte gaur egun. 600 mendi ezberdin igo dituzte eta 100 ibilaldi neurtutan parte hartu, Estatu mailako kanpamentuetara joaten dira, beteteranoen ibiladietara... Mendia da euren bizitza.

### Zuen gaztaroan nolakoak ziren mendira irteerak?

**MODESTO:** Oso diferentia zan. Aizkorriara juteko egun osua edo gehixao bihar izaten zan. Lehenengo trenian San Prudentziora, handik Oñatira. Oñatin autobusa hartu eta Arantzazura ailegatu orduko eguerdiko ordubata izaten zan. Aizkorriara igo eta askotan gaua Urbixan pasatzen gendun.

**ARANTXA:** Nik lehenengo aldiz jantzi nitxuanian praka motzak, pentsatu naban deskomulgatu egingo ziela. Gainetikan gona bat ipintzen naban herrian ibiltzeko eta mendirako kendu. Oinetan abarkak ibiltzen genitxun eta za-

kurik ere ez zakagun. Manta batzuk josi eta kitto.

### - Kofixek ekarriko zaban alda-ketarik.

**MODESTO:** Ya lo creo! Pentsaizu, nik kotxian karneta etara naban mendira juteko erreztasun gehixao eukitzeko. Bestela ez naban karnetik etarako seguruena. Euskal Herriatik 500 mendi diferente egin ditxugu bost-sei urtian zihar. Badakat lagun bat 80 urte ditxuana eta berak 500 mendi txeko 27 urte bihar izan zitxun, kotxerik ez zakan eta.

### - Zer da mendia zuentzat?

**IVIODESTO:** Biziva. Neu egunero juten naiz mendi bueltia itxera. Egunen batian ezin banaiz jun,



gero gabian ohera sartzerakuan zeozen biharra dakat, fattan botatzen dot.

### - Izango zenuten abenturarik.

**MODESTO:** Behin, ezagutzen ez gendun mendi batera jun ginan. Esan ziguten jende asko beruzkuan galdu itxen zala. Gu ere galdu ginan. Sasi artian ibili ginan, matxetiakin danak mozten... Zauri mordo bat egin baina ailegatu ginan azkenian baserri batera.

**ARANTXA:** Ordutik, mendira jun eta bidia aldrebesa ikusten genduan bakoitzian, zintxak lotzen genduan arboletan, bidia markatzeko.

### - Gaur egun jaio bazinete?

**MODESTO:** Akaso beste mentalidade bat edukiko gendun eta orain bezela espedizuak egingo gendun mendi oso altuetara juteko, Everesta eta holakuak.

**ARANTXA:** Halere, mendizalia izateko ez da bihar mendi oso altuak eixia. Neretzako txikixak berdin balio dabe. Gustatu egin bihar jatzu eta ingurukuak ezagutzen hasi bihar da.

### Mendi gailurrera iristean, zer sentitzen da?

**MODESTO:** Ez dago gauza ederraoriki Bertan geratzeko gogua sartzen jatzu, behera bajatu barik.



# Afeak itxi al dizkiozu maitasunari?

**Maitasunaren atzetik joatea alperrik da, maitasuna aurkitu baino sortu egiten baita. Edozein adinetan. 15 urte ditugunean bizitzen ditugun maitasun istorioak akaso 40 urtekoekin alderatuz ezberdinak izango dira. Baina adinak ez dauka eraginik maitasun kontuetan, itxuraz aldatu arren, oinarrian gauza bera baita. Urteetan aurrera egiteak ez**

**dauka zertan maitasunaren atea ixtea ekarri behar. Guk nahi dugun artean, behintzat. Dena dela, elkarrizketatu ditugun elgoibartarren artean denetarik jaso dugu. Bere bizitzan gizonik sekula gehiago izan nahi ez duen emakumea izan dugu bai eta 79 urterekin 30ekin baino maitasun behar handiagoa dagoela aitortu digun gizonik ere.**

## Juan Arriola, 63 urte

Solterua naiz baina neskak eduki ditxut, kategorixakuak. Ez naiz sekula ezkondu familixan ez zielako ametitzen. Emakurnia ondo tratau bihar da, mimau eta detailiak eduki bihar dira berakin, erregaluak egin eta holakuak. Neretzat 60 urtekin ere berdin berdin ematen da maitasuna eta gaur egunian esango neuke andria dala lehenengo arimatzen jakona gizonetzkuari. Asko aldatu dira gauzak gure gazte denboratik!

## Juana Urresti, 83 urte

Alarguna naiz orain dala zazpi urtetik. Nik orain gizonekin daukaten harremana sinpatiakua da, "nada Ez dot nahi nik nere bizitzan beste gizonikan, "ni colgando brillantes no quiero yo hombres". Orain baino hobeto ez naiz ni sekula bizi izan. Berba itxeko lagun bezela badauzkat gizonak baina hortik aurrera ezer ez dot nik nahi. Ez dot nahi, ez dot nahi gizonik nik. Nere gaztetasunian etorri jatan bat eta jente guztiak esaten zian ona zala eta holaxe ezkondu nitzan. Baina oraingo trankilidadia ez neuke nik ezerren truke aldatuko, ez eta gizon baten truke ere.

## Juan Jose Oruesagasti, 79 urte

Ezkonduta nago ni urte askuan. Gaur gauza gaiztua da emakumiak ezagutzia, gaur egungo emakumia lehenguengandik kanbi-xauta dago. Soltero asko geratzen da baina arrazoirik badake! Ni neu alargunduko banintza eta gustoko bateron bat topatuko banaban ezkonduko nitzala pentsatzen dot, orain 30 urtekin baino nezesidade gehixao dakat lagunana. Maitasuna amaitzen ez dan gauza bat da eta batzuk sekula hartzen ez dabena, euren txarrerako.

## Juliana Irizar, 82 urte

1950. urtian alargundu nitzan. Beti umieri begira egon naiz, bizimodua aurrera atera nahian. Halere behin eskurtsio bat egin genduan Mallorkara eta han ezagutu naban gizon bat. Leongoa zan, oso gizon edukatua. Beste hotel baten zeon bera baina gabian hara nun presentatzen da gurean. Inpresioa egin zian baina hurrengo egunean bueltatzeko ginan. Gustatzeko moduko gizona zan baina ez dot uste aurrera egingo nabanik. Dakaten urtiekin ez nintzake ezkonduko. Beste gizon bati ere igarri nion nerekin konbersazioa ematen zidala eta eman izan banio akaso zerbait izango zan baina... Lagun artian komentatzen ditugu gizon kontuak baina broma bezela.



# Alzheimierra

**A**lzhemerra gaisotasun neurodegeneratiboa da, nerbio sistemaren degenerazio bat. 1907. urtean Alois Alzheimer medikua emakume ero baten autopsia egiten ari zela, egitura berezi batzuk aurkitu zituen aipatu emakumearen garunean. Egitura horiek agertzen dira ordudunik Alzheimer izena darman gaitza duten pertsonen garunean. Gaitz hau zergatik sortzen den ez dago oso argi. Hala ere, Alzhemerra agertzea errazten duten hainbat **ARRISKU-FAKTORE** aipatu izan dira:

- a) Aurrekariak izatea familian.
- b) Intelektualki bizimodu pasiboa izana.
- d) Oroimen galera patofogikoa eta goiztiarra.
- e) Buruan kolpe gogorren bat jasotzea.

Adineko pertsonak izaten dute gaisotasun hau. 65 urtetik gorako pertsonetan %1-2a daude Alzhemerra izateko arriskuan.

## SINTOMAK

1.- Lehenengo fasean oroiimen "lapsus" txikiak eta nahikoa arinak izaten dira. Zerbait izendatzeko hitz egokia aurkitu ezinik egoten da. Gatzontzia esateko, adibidez, "zera hori" esango du. Bere hurbileko inguruarekiko eta bere gauza pertsonalei buruz gero eta interes gutxiago.

2.- Memoria hutsegiteak irauten du bigarren fasean baina iragan urruneko gertakizunak (haurtzarora dibidez) gogoratzekeo gai da. Erantzunak emateko duda asko izaten ditu eta denborari dagokionean desorientatua ibiltzen da, urtebetetzeak ahazten ditu, esaterako.

3.- Hirugarren estadioan erabateko desorientazioa ematen da pertsonetikiko, denborarekiko eta espazioarekiko. Ia ezinezkoa da beraiekin elkarrizketa mantentzea. Noraezean ibili ohi dira,

ilunabar aldera bereziki.

4.- Azkeneko estadioan hondamena mentala eta fisikoa da. Ez da ibiltzeko gai eta komunikatzeko gaitasuna galtzen du. Ez ditu senideak ere ezagutzen. Hesteetako eta maskuriko kontrola ere sarritan galtzen du. Hona iritsiz gero janaria ahora eman behar izaten zaio.

Diagnostikoa ziurtatzeko gaisoaren jarraipena egin behar da. Orain urte batzuk Alzhemerra zuten asko zahartzaroko demenzi kasutzat diagnostika zitezkeen. Gaitza diagnostikatzeko modurik fidagarriena autopsia da baina pertsona bizirik dagoen bitartean, zer?

Zoritxarrez gaur egun ez dago Alzhemerraren prebentziarako ezer, ez eta sendatzeko botika efikazik ere.

## ALZHEIMERRA DUEN GAI-50 BATI LAGUNTZEKO GOMENDIOAK

1.- Gaitza sendatu ezin den arren, sintoma batzuk hobetu egin daitezke tratamendu egokiarekin.

2.- Gaitzak ez dakarkio minik pazienteari.

3.- Gaisoari inguruko errealitatea agertu behar zaio behin eta berriz: Nor naiz? Non zaude? Zein egun da?

4.- Urduri edo erasokor badaude medikuari kontsultatu.

5.- Umore txarrez edo nnespretxuz badago pazientziak hartu eta maitasunez tratatu.

6.- Ez daitezela ohean geratu edo isolatu. Harreman positibo eta beroa mentendu beraiekin.

7.- Zuretzat nahi zenukeen errespetu eta maitasun berberaz tratatu.

Norbaitek informazio gehiago nahiko balu, Donostiako Alzheimer Elkartera dei dezake. Hona hemen telefonoa: 42 81 84.

**ITURRIA: JABIER AGIRRE**  
Elhuyar aldizkaria.



**FULGENCIA  
AGIRREGOMEZKORTA**

## GISATUA

### OSAGARRIAK:

Olioia, kipula, okela, ozpina, gatza, irina, tomatea, txorizeroa, salda, patata eta azenarioa.

### PRESTAKETA:

Lehenengo dana dorau bihar da, zartain batian oliotan jarri kipulia eta haura biguntzen danian okelia botatzen da, dana xamur xamurra ipini arte, Hari beste guztia bota bihar jako gero, tomatia, ozpin piska bat, txorizerua gisatua bizi-tzeko, patatia eta azenarioa. Kazuela batera pasatu eta gainetikan saldia bota bihar da, okelian saldia edo berdurena edo nahi dana. Eta saldarik ez badakagu, ura. Irin piskat ere botatzia komeni da, saltsia apur bat lotitzeko. Gatza ere norberan gustora eta egosten laga bihar jako, egin arte. Zein baino zein ederragoa urtezen da gisatua. Erreza egiteko eta gustora jateko platerria da.



ala

## Lurdes Zigorruga

### Ipintza dendakoa

• **Zergatik zarete Ipintzatarak pintore familia? **I**** Nire aitak hamalau urte zituenean ikasi zuen ofizioa delako.

• **Zuk zer izan nahi zenuen?**

**I** Txikitan erizaina izan nahi nuen, neska gehienek bezala.

• **Zein da lanerako sasoirik onena?** Udaberria, dudarik gabe.

Txarrena, berriz, negua.

• **Kolore bat? **I**** Berdea.

• **Mundua zein koloretan ikusten duzu? **f**** Beltza, nahiko beltza.

• **Irratia ala telebista? /** Telebista.

• **Hotza ala beroa? **I**** Beroa.

• **Hamarretakoa ala merienda? **I**** Harnarretakoa.

• **Gustuko izen bat? **I**** Naiara.

• **Horoskopoa sinisten al duzu?**

Ez, oso gutxi. Baina irakurtzen dut.

• **Zerk kexatzen zaitu? **I**** Langabeziak, HIESAk...

• **Zerk beldurtzen zaitu? >** Uretan nagoenean eta hankek ez badute lurra ikutzen, asko estutzen naiz.

• **Bakarrik zaudenean kantatzen al duzu?**

Puff! Beti. Bakarrik nagoen bakoitzean.

• **Zertan pasako zenituzke 20 minutu? >** Itsasora begira.

• **Zein da duzun ohiturarik txarrena? **I**"Pronto"** oso txarra daukat. Haserretzen naizenean pentsatu gabe "salto egiten dut".

• **Maitasuna, dirua ala osasuna? **I**** Denak dira beharrezkoak.

• **Animalia bazina? **I**** Txori bat, dudarik gabe.

• **Margolari bat? **I**** Turner.

• **Elgoibarko tokirik ederrena? **I**** Leku-Eder, oso ongi geratu da.

• **Eta zeren falta duzu? **I**** Gazteak elkartzeko toki baten falata.

• **Zer gosaltzen duzu? **I**** Colacao gailetekin.

• **Zinean ikusi duzun azken pelikula? **I**"Bailando con lobos"**.

• **Irakurri duzun azken liburua? **I**** "El medico".

• **Ondo lo egiteko errezeta?**

Ez dut aparteko errezetarik. Lasai oheratuz gero, ondo egiten dut

• **Bukatzeke, zergatik Ipintza?**

>Nire aita Ipintza baserrikoa delako.



JOSEBA GOROSABEL

## SANTA ZEZILIAREN OMENEZ

Santa Zeziliari  
eginaz omena,  
gure kantuak dira  
opari onena.  
Orkestakin batera  
denbora gehiena,  
eskertu nahi genuke  
Santua aurrean.

*Goizean jaikiz, kalerik kale  
musika talde onena  
herritarrei poztu nahiean  
triste daukaten barrena.  
Hau da musika zoragarria  
neri gustatzen zaidana  
Elgoibartarrak poztu nahieal  
egin behar degu lana.*

Tronpeta eta danborra  
txapak, bibolina,  
musikarako degu  
behar haina grina.  
Nahiz eta ondo jotzen  
egin ahalegina  
sarri gerta litekeena  
nahi eta ezina.  
Goizean...

Musika dakarkigu  
bertsoa ere bai,  
aspalditikan geunden  
gaurko egunan zai.  
Goza dezagun denok  
pozik eta alai,  
egun hau galtzerikan  
inork ez baitu nahi.  
Goizean...

BERTSO ESKOLA

# 61tueta

ZAPATAK ETA POLTSAK

San Frantzisko 2 - .n. 74 04 95 - ELGOIBAR

**GOIERKI** IGONGAIWAK

\_, Urrutira deitu gabe bertakook segiduan  
konponduko dizugu igongailua

577943) 11 35 15 s 91 ABERIAK (943) 11 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

# Altzolako Lonja-Etxea Kultur Ondasun izendatu dute

Joan den urriaren 21ean, Elgoibarko Altzola auzoan dagoen Lonja-Etxeari monumentu izendapena eman zitzaien Kultur Ondasun gisa eta hala agertu da Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean. Izan ere, aipatu eraikuntzaren balio historiko eta arkitektonikoa hartu dira kontuan.



**Aitolako Lonja - Etxea orain gutxi eraberritu dute.**

**A** Itzolako Lonja-Etxea zubia-  
ren ondoan dago eta lau  
solairutako eraikuntza da.  
Beheko aldean sarrera dint-  
elduna du eta lehenengo solairuan  
solana bat puntu erdiko hiru arkuz  
osatua.

Lonja-Etxea garai batean aduana izan zen Debatik zetozen gabarrentzat. Hauek, kostaldeko herriak barneko aldekoekin harremanetan jartzen zituzten. Inguruan egiten zen burniaren komertzioan garrantzi handia izan zuen. XIX. mendean hotela izan zen, Albizkua hotela, hain zuzen ere. Gaur egun etxebizitza bat da.

## Udaletxea

Orain hilabete eskas Elgoibarko Udaletxean plaka bat jarri zuten. Bertan irakur daitekeenez, Udaletxeak

**Kultur** Ondasun Kalifikatuaren maila dauka. 1984ko uztailaren 17an eman zen dekretoan nazio mailako Kondaira-artecko Monumentu izendatu zen.

Garai batean Euskal Herrian kontzeju irekiak egiten ziren. Herritar guztiek har zezaketen parte eta askotan zuhaitz baten azpian elkartzen ziren. Denborak aurrera egin ahala, herria haunditzen joan zen eta aurrez aukeraturiko herritar batzuk elkar-tzen ziren erabakiak hartzeko. Honela, 1728ko maiatzaren 22an Felipe V.ak baimena eman zuen Elgoibarren Udaletxea eraikitzeko. San Bartolome

parrokiaren alboan egitea erabaki zen, Kalegoen Plazan. Antonio Larraza izan zen harrobi maisua. 1737 aldera eman zen amaitutzat Udaletxea.

1548an Errege Katolikoek eskaini zutenharmarria dago Udale-txean. Bertan gaztelu bat agertzen da bai eta Olasotik harturiko hiru bihotz ere, Ganboatarren ikurra zena. Harmarria bi lehoik, munstro-buru batek eta kasko batek eusten dute. Guztia landarez eta bestelako elementu bejetalez aberastua bai eta gerra garaiko ekin-tzak gogora arazten duten bi kanoiz ere.

Jose Elozegi, 105  
20 016 DONOSTI

# E OS

San Viator, 2  
48970 BASAURI

## BEROGAILUEN INSTALAKUNTZA

• GAS NATURALA •

PROPANOA •

## GAS INSTALAKUNTZA

Dei p **gig uzul** (943) 39 11 05  
(94) 426 37 29 telefonoetara



**TIRO RIRo:**

San Frantzisko, 54. 74 13 8,

**Santa Klara komentuko musika tresnak (III)**

- 1808an mojek berriz ihes egin behar izan zuten, Napoleonen armadak penintsula erasotu baitzuen. Une horretan, mojek Debara alde egin zuten. Halere, denbora gutxi egon ziren Elgoibartik kanpo eta monastegian ez zen apenas kalterik izan. 1839ko abuztuaren 31n gerra amaitu zen Espartero (liberal espainiarra) eta Marotoren (karlista) arteko Bergarako Besarkadaren bitartez.
- 1833ko ekainaren 16an, Frai Diego Bidaburuk organoari buruzko txostena idatzi zuen tresnaren egoeraren azterketa eginaz, konpondu eta erantsi behar zitzaiona azalduz eta konponketaren kostua zein ordainketa epeak zehaztuz.
- Aita Bidaburuk "secreto" berria eta 54 teklatako teklatura egin zituen. Erredukzio ohola erreformatu zuen, bajoi txikia eta klarinarentzat bi plantila, flautaren 9 hodi berri, bioloiaren 12 hodi eta baita zenbait berrikuntza ere.
- Konponketaren salneurria 12.300 erreale tara jarri zuen fantziskotarrak.
- Organo konpontzailea Isidro Garrido izan zen. Mojekin egin zuen tratuan 7.300 erreale zehaztu zituen ordainetan. Ordainketa hiru epetan egitea erabaki zen: lehenengoa mementuan, bigarrena lana amaitzean eta hirugarrena handik urte batera. Epe bakoitzean 2.433 erreale eta 11 maravedi ordaindu ziren.
- Hala ere, idatzitako zehaztapen guzti horiek ez ziren bete. Zortzi hilabetera, Isidro organo konpontzaileak "obraren kargak" zituela eta, lana aurreragorako

uztea erabaki zuen. Dena den, 2. epearen kontura 1.000 erreale jaso zituen.


- Organuaren konponketa 1839ko ekainaren 16an amaitu zen. Ordainketak ere lanaren arabekoak izan ziren. 2. epeko ordainketa osoa lana bukatzean jaso zuen Isidrok eta 3. epeari zegokiona hiru zatitan ordaindu zen. Halere, 433 erreale eta 11 maravedi gutxiago eman zitzaizkion.
- Estuasuak izan zituzten, Mendizabal ministro espainiarrak "eliz-desamortizazioa"ren legea jarri baitzuen 1837ko uztailearen 29an. Lege honen bidez, komunitate erlijiosoen ondasunak, errentak eta abar Estatuaren esku geratu ziren eta enkante publikoan atera.

PELLO ARRIETA



**Miguel Etxeberria**

**Farmazeutikoa (1910-1982)**



1910ko otsailaren lehen jaio zen. Bost belaunalditako farmazeutikoen familatan laugarrena zen Migel Etxeberria. Gaurregun alabek dute farthaziaren ardura. Miguelen birrai tonak sortu zuen farmazia duela 170 urte baino gehiago. Foruen Plazan egon izan da beti Etxeberriatmen farmazia. Madrilen ikasi zuen. 1936eko uztailearen 14an Valdecillako sanatorioan tesia prestatzen hasi zen. Hiru urte eta lau hilabetez egon zen bertan. Gerra Zibila bizi izan zuen han zegoela. Berehala Elgoibaffera etorri zen aitarekin farmazian lan egitera. Inguruko analista bakarra zenez, batera eta bestera ibili behar izaten zuen analisiak eziten. Hiru denboralditan jokatu zuen futboleant. Elgoibarren ezezik, Racing de Santander taldean ere aritu zen. Edozein motako dokumentuak gordetzea gogoko zuen. Perretxikoetan zaletua zen eta gaiari buruzko hitzaldiak eman zituen eta artikuluak idatzi ere bai. 1982ko urtarrilaren 7an hil zen.

*imanole*  
**GOZOTEGIA**  
San Frantzisko 44, 74 41 37

**gR** **goki el** **re for mak, Sf.** DEBA KALEA 12  
20870-71603 RR  
**ERREFORMAK**  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
**OBRAK OROKORREAN**

## A

### Mendi irteera

Morkaiko Mendizale Elkarteak mendi irteera burutuko du igandean, hilak 20, Guardetxe, Txindoki eta Larraitz mendi tontorretara. Izena emateko Morkaikoren lokaletik pasa daiteke. Prezioa 1000 pta bazkide ez direnentzat eta 800 bazkideentzat. Irteera Plaza Handitik izango da goizeko 8etan.

### Eskolarteko atletismo lasterketak Mintxetan

Sortu berri den Mintxeta-Txankakua Atletismo Taldeak lehendabiziko eskolarteko pistako atletismo lasterketak antolatu ditu larunbat honetarako, hilak 19. Lasterketak goizeko 10,30etan hasiko dira Mintxetako Udal Atletismo Pistan. Hiru maila egongo dira: alebinak, infantilak eta kadeteak, hau da, OHOk 5, mailatik BBBko 2. mailara bitartean, azken hauek barne. Mintxeta-Txankakua Taldeak ahalik eta haur gehien parte hartzera deitu nahi ditu. Epaile lanetan Ego-Tokiko eta Mintxeta-Txankakua Taldeko kideak arituko dira.

### Bederatzi titufatu berri atletismoan

"Ki rola euskaraz" kanpainaren barruan burutu berri den atletismo ikastaroan bederatzi elgoibartarrek lortu dute atletismo monitore nazional titulua. Kanpainaren baitan egingo den hurrengo ikastaroa futbolari buruzkoa izango da abenduan.



## Manolo Herrero:

### "Bertako jokalariaik bultzatu beharko lituzkete"

**1 Zein taldetan jokatzen duzu?** - Eibarko Arraten, Ohorezko B Dibisioan eta Nazionalean ere bai. Oraindik 21 urte ditudanez junior fitxa daukat eta hartara bi ekipoetan joka dezaket.

**1 Beti jokatu izan duzu Eibarren?** Eskolan hasi nintzen 6. mailan. Gero 8. mailan Eibarren hasi nintzen eta han jarraitu dut beti.

**1 B mailatik A mailara pasatzerik badaukazue?** - Aurten oso zaila izango da igotzea, mantentzea lortzen badugu nahikoa. Sailkapean 12tik 6.ak gara gu. Orain partidu errazak ditugu, ea irabazten dugun!

**1 Talde bietan jokatzen duzu. Alderik?** -Bai, aldea egon badago. Ohorezko maila gorago dago. Nazionalean Espainiako taldeen aurka jokatzen dugu. Ohorezko B maila futboleant bigarren dibisioan egotea bezalakoa da.

**1 Elgoibarren jokatzerik pentsatu al duzu inoiz?** - Bai, Zigor Esnaolak eta biok hitz egin izan dugu, baina momentuz daukaguna aprobetxatzea hobe. Garrantzitsuena ondo pasatzea da.

**1 Elgoibarren goiko mailan jokatzea posible litzateke Eibarkoak bertara etorriko bazinete?** - Elgoibarko seniorren taldea ona da. Ez ditut aurten

- Adina: 21
- Talde faborittoa? Elgorriaga. Onak dira.
- Futbolzalea? Bai.
- Zaletsunak? Futbola ikusi eta lagunekin irten.



jokatzen ikusi baina jende ona dute. Mailaz igotzea piskanaka lortzen den zerbait da. Bigarren Nazionalean igotzeko aukera badute.

**1 Zein da zure funtzioa taldean?** - Ezker hegalean jokatzen dut eta nere funtzioa golak sartzea da, ahal bada behintzat.

**1 Entrenatzaile atzerritarra duzue?** - Orain arte jugoslaviar bat izan dugu. Lau partidu irauin zituen, komunikazio txarra zegoelako.

**Alderik ba al dago hemengo eta atzerriko entrenatzaileen artean?** - Atzerritarrek serioago hartzen dute kontua. Beraien mentalitatea horrelakoa da. Orain Juanma Lopezek entrenatzen gaitu, jokalaria izandakoa da. Orain, behintzat, elkar ulertzerik badaukagu.

**1 Zer diozu atzerritarrek fitxatzeari buruz?** - Klubarentzat errazena da ondo jokatzen dutelako, teknikan hobeak dira, indibidualki zein kolektiboki. Nere ustez bertako jokalariaik bultzatu beharko lituzkete, kantera sortu. Orain Errusiar bat eta Txekoslovakiar bat daude, topea bi dira.

**MENDIRAKO EKIPAMENDU TEKNIKOA**  
K/ Harruriaga 8. BERGARA Tel: 76 08 84

Denda berri bat zabaidu dugu.

**EZ EZAZU ITSUAN EROSI!**  
Lagaiguzu aholkuak ematen.

**JON LAZKANOK** emango dizkizu aholkuak.

**Z BIZIC25.11**  
in **2E11DOXIC**  
ARDO ETA PATTARRA  
PATATA SALMENTA  
**Etxerainoko banaketa**  
Errosario 18  
74 02 37

# 40 elgohartar Behobia Donostila lasterketan



• **J Parte hartu zuten elgoibartar talde bat. Ezinezkoa denak biltzea.**

**I**noiz baino elgoibartar gehiago animatu ziren joan den igandean Behobian hasi eta Donostian bukatu zen lasterketa ezagurtean parte hartuz. Guztira 7.145 korrikalari sartu ziren helmugan, hauetatik, Fortuna taldeak emandako datuen arabera, 40 bat elgoibartarrak zirelarik. Aipatzekoa, hiru elgoibartarrek eta mendarotar batek herriko lau presoen izenean korritu zutela. Helmugan sartu zen lehen elgoibartarra Jose Felix Iglesias izan zen 1:15:20 denborarekin. Honen aurretik Iñaki Jaio presoren izenean korrika egin zuen mendarotar bat helmugaratu zen 1:09:41eko denbora eginez. Maria Pilar Arriola helmugara heldu zen

lehen emakume elgoibartarra da, 1:38:48ko markaz.

## Sei emakume lasterketan

Kirol ikuskizuna baino gehiago, Fortuna taldeak antolatzen duen lasterketa herrikoi hau fenomeno soziologiko ez ote den bihurtu esaten duenik ba omen dago. Fenomenuak fenomenu, 40 bat herritarren izenak agertzen dira Fortunak BARRENi bidalitako sailkapenean. Aipagarria da oso, elgoibartarren zerrenda horretatik, 40tik alegia, sei emakumeak direla. Esan digutenez, lasterketan parte hartu zuten emakumeen batzubes-tekoaren. gainetik dago emakume elgoibartarren kopurua.

## ELGOIBARTARREN ZERRENDA

IZENA	ORDUA	POSTUA
Iñaki Jaio*	1:09:41	(58)
Jose Felix Iglesias	1:15:20	(190)
Jose Mari Fernandez	1:16:34	(234)
Iñaki Andonegi	1:20:08	(460)
Mikel Legorburu	1:21:36	(581)
Juan Fernandez	1:22:54	(715)
Roberto Garcia	1:23:00	(724)
Javier Iriondo	1:23:37	(806)
Imanol Larrañaga	1:23:57	(843)
Iñigo Ortuoste	1:25:00	(964)
Jose Antonio Agote	1:25:30	(968)
Iñigo Etxaniz	1:26:26	(1140)
Abel Guerra	1:30:22	(1728)
Francisco Frias	1:30:41	(1785)
Inazio Iriondo*	1:31:01	(1838)
Aitor Ibabe	1:31:16	(1887)
Jorge Elkoro Iribe	1:33:19	(2251)
Nicolas Polo	1:34:10	(2413)
Juanjo Gurrutxaga	1:36:30	(2867)
Eduardo Uribe	1:36:46	(2956)
Xabier Arriola	1:36:57	(2993)
Jose Luis Eguren	1:38:38	(3309)
M. Pilar Arriola	1:38:48	(3348)
Jose Ignacio Izagirre	1:38:53	(3365)
Aitor Argarate	1:38:54	(3370)
Alberto Agirreazaldegia	1:40:48	(3729)
M. Eugenia Gonzalez	1:42:14	(4027)
Pilar De la Larna	1:45:35	(4694)
Iñaxio Garmendia	1:49:37	(5419)
Izaskun Estibariz	1:49:37	(5420)
Andres Alberdi	1:50:29	(5552)
Antton Izagirre	1:50:45	(5598)
Antxon Alvarez	1:52:18	(5823)
Iñaki Uribe	1:53:52	(6003)
Mikel Ibañez*	1:56:05	(6256)
Sebastian Etxaniz*	1:56:07	(6262)
Andoni Etxeberria	1:58:46	(6487)
Ismene Fulgencio	1:58:47	(6488)
Alex Sasiain	1:58:48	(6490)
Dorleta Arozena	2:06:52	(6883)

\* Korrikalari batzuek herriko presnen izena entan zuten.

iturria: Club Fortuna

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan Larunbata 19

12,30: S. D. Eibar - Añorga (Kadeteak)  
15,30: Elgoibar - Ordizi (Kadetea)  
17,00: Haundi - Aurrera Ondarru

### Igandea 20

10,00: Eibar Urko - Astileku (Jubenilak)  
12,00: S. D. Eibar - Gazteak (2. errejionala)  
13,45: Urki - Aretxabaleta (Jubenilak)  
16,00: Elgoibar - Arantzazuko Ama (Infantilak)  
17,30: Urki - Antzuola (2. errejionala)

### ESKUBALOA Kiroldegian Larunbata 19

17,30: Elgoihar Bidebieta (Senior Neskak)

### FUTBITOA Urasandin Igandea 20

10,00: Karkis - Gruas Pana Pednisko - Tropiko  
11,00: Sporting - Berrogei Duro Mimox Revel Urbi  
12,00: U. de Chile - Resto del Mundo Fotero - Hunde Verboten

### FUTBOLA

Reai Sociedad 2- Elgoibar 0 (InfantiIlak)  
Anaitasuna I Elgoibar 3 (Kadeteak)  
Santurtzi 0 - Haundi 1  
Elgoibar 5 - Bergara 2 (Neskak)  
Elgoibar 2- Beti Ona 4 (Jubenilak)  
Elgoibar 3- S. D. Eibar 3 (2. errejionala)

### ESKUBALOA

Ordizia 4- Elgoihar 33 (Kadete neskek)  
Elgoibar 36 - Leizaran 8 (Kadete mutilak)  
Elgoihar 18 - Bidebieta 27 (Jubenil mutilak)  
Txankakua Elgoibar 25 - Aierra 8 (Senior mutilak)

### FUTBITOA

Aldavas 1 D.T. Veterans 2 D. Kalimotxo 0 - Kosakos 7  
Haritza 2- Oraiko Cafe 4 La Maxia 2- Ametsa 3  
Replastisa 0 - San Rokatartak 7 Rua 2- G. Garcia 3

## NAZIOARTEKO IV. XAKE TXAPELKETA

# Faboritoak aurrez aurre, lehen errondan

Asteartean egindako aurkezpen ofizialean zehar, Nazioarteko IV. Xake Txapelketan jokatu duten bikoteen zozketaren arabera, bi faboritoek, Ubilava georgiarrak eta Flear britainiarrak, aurrez aurre jokatu beharko dute lehendabiziko errondan. Igandean hasiko den txapelketa honetan, beraz, ez da emoziorik falta izango.

**A**stearteko aurkezpenean Jose Inazio Elkoro Iribe alkateak, Gillermo Garate kultur zinegotziak eta Euskal Herriko Xake Federazioko presidentea den Miguel Angel Muelak txapelketaren nondik norakoan berri eman zuten. Hilaren 20tik 28ra bitartean, Nazioarteko IV. Xake Txapelketari dagozkion partidak jokatu dira Kultur Etxeko azken solairuan arratsaldeko 4etatik 10etara bitartean. Aurten 10eko "magistral" kategoria lortu du txapelketa honek, Euskal Herriko hirugarrena da Bilboko eta

Donostiako txapelketen atzetik. Elgoibarko txapelketaren aurrekontua bi milioi Cerdikoa da, hauetatik milloi bat sarietan banatuko dutelarik.

Miguel Angel Muela Federazioko presidentea, aurrera begira neskak txapelketara ekartzeko asmoa azaldu zuen, munduko jokalaririk onenak, sueziar txapelduna, hungariarra, georgiarra edota armerikarra Elgoibarren jokatzeko ikusteko aukera izateko.

**Estatutik etorritako haurrak**

Iaz bezala aurten ere, Estatuko ipar aldeko 20 bat haur Elgoibarren izango



• E Asteartean komunikabideen aurrean egindako aurkezpena.

dira txapelketak irauten duen egunetan, errusiar maisu baten irakaspenak jasotzeko. Haurrak Mintxetan egingo dute lo, horretarako Tolosako Udalak lagatuko litera batzuk

jarri direlarik. Literak eskuratzeko Aldundiaren laguntza espero bazuten ere, azken unean ezetza jaso dute eta Tolosako Udalarari eskatu behar izan diote kolaborazioa.

### LEHEN ERRONDAN JOKATUKO DUTEN BIKOTEAK:

Jesus Iruzubieta (Euskadi) - Antonio Antunes (Portugal)  
 Rafael Alvarez (Euskadi) Aleksa Strikovich (Jugoslavia)  
 Reinaldo Vera (Cuba) - Felix Izeta (Euskadi)  
 Pablo San Segundo (Espainia) - Maria Gomez (Euskadi)  
 Glenn Flear (Britainia Handia) - Elizbar Ubilava (Georgia)

## KIROL FLASHAK • K1ROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK



**Ibai gimnasioko** judoka hauek, guztira, 15 domina lortu zituzten joan den igandean Ondarruko Kiroldegian izan zen III. Judo txapelketan. Elgoibartarrek urrezko 6 domina, zilarrezko 3 eta brontzezko 6 eskuratu zituzten. Urrezko domina irabazi zutenak Maialen Mora, Ana Estevez, Aitor Gonzalez, Javier Muñoz, Aitor Mugerza eta Aitor Gabilondo izan ziren. Zilarrezkoa Hodei Ostolazak, Xabier Gonzalezek eta Mikel Sastrek lortu zuten eta brontzezkoa Iker Rodriguezek, Zuhaitz Martinezek, Mikel Muñozek, Zuriñe Polok, Maria Idiakezek eta Esther Idiakezek. Igande honetan, hilak 20, Irunen izango dira Ibaiko judokak Gipuzkoako Txapelketarako puntuagarri izango den txapelketan parte hartzeko.

# Kontzertuak eta kalejirak Santa Zeziliaren omenez

Santa Zezilia eguna, musikarien zaindariaren eguna ospatuko dute musikazale guztiek datorren asteartean, hil honen 22an. Egun horretan ezezik, musikarekin lotutako hainbat ekitaldi burutuko dira aste osoan zehar ere. Ikastolako haurrak ere, urtero bezala, Santa Zeziliaren omenez kalejiran aterako dira goizez eta arratsaldez.

**M**usika eta Dantza Fundazioak hainbat ekitaldi antolatu ditu datorren astean zehar. Larunbat honetan Udal Txistulari Taldeak kontzertua eskainiko du Udaletxeko arkupeetan arratsaldeko 7,30etatik aurrera. Astelehenean, Santa Zezilia bezpera egunean, arratsaldeko 7,30etan, Inazio Bereziartua Musikeskolak ikasleen kontzertua hasiko da Herriko Antzokian. Bederatzi saio ezberdin eskainiko dituzte; tartean, piano, kitarra, txistu, akordeoi, eta biolin piezak. Euskal musikarien obrez gain, pieza klasikoak eta modernoak ere joko dituzte. Santa Zezilia egunean, hilaren 22an, Itxaropena abesbatzak kontzertua emango du iluntzeko 8etan Udaletxeko arkupeetan. Hurrengo igandean, Udal Musika Bandaren kontzertua baino



Santa Zeziliaren izenean, musika ekitaldi mordoak burutuko dira astean zehar.

lehen herriko dultzaineroek kalejira eskainiko dute eta eguerdiko 12,30etan Bandaren kontzertua hasiko da Herriko Antzokian.

**Ikastola ere Santa Zeziliaren omenez**

Urtero bezala Ikastolako haurrek Santa Zezilia eguna ospatuko dute hil honen 22an. Musikazaleen jai egun honetan goizeko 8,30etan Plaza Handian bilduko dira, kalejiran Ikastolara iritsi arte. Arratsaldeko 4,30etan Ikastolatik Plazaraino abiatuko dira kantuan, hara heltzean bertsoak kantatuko dituztelarik. Berandutxoago, seiak

aldera, Ikastolako zortzigarren mailakoek musika pieza batzuk interpretatuko dituzte kaleetan zehar.

**Santa Zeziliari buruz pare bat datu**

Santa Zezilia II. mendeko birjina eta martiri erromatarra da. Musikarien zaindari izendatu zuten himno instrumental eta koral bat kantatuz Jainkoa goratzen zuelako. Ordutik musikari guztien zaindaria da. Santa Zezilia abesten eta klabikordia jotzen ikus daiteke Museo del Pradon Poussin margolariak inargotutako koadroan.

**ZELETA**

**Barazklak**

80477177/1911 zionla eta ialedua,

gacolla



5110 RRIZICO  
11, Q42.

8454 

akite,,),

**ZELETA BASERRIA 74 30 22**  
San Migel Auzoa - ELGOIBAR

**MIREN**  
arraindegia



Santa Ana  
74 34 49  
**ELGOIBAR**

# Arazoa al da 4/40, 4is gazteontzat?

Orain hilebete eskas Elgoibarko, Eibarko eta Ermuako Udaletxeek, alkoholaren kontsumoaren prebentziorako programa berri bat aurkeztu zuten. Bertan, herri hauetako gazteen artean aste-bukaeratan ematen den alkohol kontsumoari aurre egiteko hainbat puntu zehazten dira.

1. Zer egiten duzu asteburuetan?
- 2- Alkohol arazoa al dago gazteen artean?
- 3- Ezagutzen al duzu Udaletxearen programa berria?
- 4- Alkoholik gabeko edariak merkeagoak balira edango al zenituzke?
5. Zein alternatiba jarriko zenuke taberna zulotik ateratzeko?

Besteak beste, heziketa eta informazioa, 18 urtetik beherakoei alkohola saltzearen debekua edota alkoholik gabeko edarien prezioa merkeagotzea. Halere, gazteak dira benetako protagonistak. Eurengana io dugu, arazoa dagoela ikusten duten ala ez jakin dezagun beraien ahotik.



## ITZIAR ELUSTONDO

16 urte

- 1 - Lagunekin edo mutilakin tabernaz taberna ibiltzen naiz.
- 2- Jende askok edaten dau baina ez dakit hori arazo bat izatera iritsi daitekeen.

- 3 Bai, baina nik uste dot nahiz eta horrelako gauzak egin, nahi duenak edaten jarraituko duela. Iguar oraindik hasi ez diren gazteengan eragina izan dezake baina besteentzat, zaila ikusten dut.
- 4 - Ez dot uste alkohola edaten denik merkeagoa delako bakarrik. Nahi dabanak alkohola edaten dau benetan gustatzen jakolako.
- 5- Gaztetxe bat batez ere, bertan irteerak antolatzeke, mahainguruak...



## IBAN DIEGO

16 urte

- 1 -Aspertu. Tabernaz taberna baina nahiko aspertua.
- 2 -Arazoa betikua da eta Gazte Asanbladak antolatu izan ditxu ekintzak horri aurre egiteko baina Udaletxiak ez digu sekula lagundu.
- 3 -Bai eta ondo iruditzen jata alkoholaren aurrian zeozer preparatzia baina horretarako beharrezkoa da danen artian antolatzea, gaztiok ere parte hartuz.
- 4 -Baleike. Halere, ez da erreza. Neretzat jendiak edaten dau astian zehar dauden problemak ahaztu eta piskat desfasatzeko.
- 5 -Gaztetxe bat, dudarik gabe. Guztion esku lagako nabari ekintzak preparatzia, guria bada arazua irtenbidia gurekin kontaktzen topatu bihar da.

## AMAIA SASTRE

16 urte

- 1 -Tabernetara jun, dantza egiten dou...
- 2 -Arazia badago batez ere kanpokuen artian ze herritik kanpo daude eta kriston desfasia itxen dabe.
- 3 -Zeozer entzun dot eta nik usten dot zeozertarako balioko dabala. Informazio asko ez dakagu alkoholari buruz. Danian bezela, benetan zeozer txarra pasatu arte ez zera konturatzen nun dauan problemia eta ez diozu inportantziarik ematen.
- 4 -Gaztiok ez dogu diru asko edukitzen eta zeozertarako balioko zaban edarixen prezioa merkio ipintziak.

- 5 -Irteera eta diskotekak ipini izan ditxue eta ez dabe ondo funtzionatu. Gaztetxe bat ondo egongo zan. Problemia da gaztiok ez dalkaltula elkartzeko lekutt bat eta horregatik jotzen dogu tabernetara, eta han, klaro, edan egiten da.



## AMAIA 1TURRIOTZ

16 urte

- 1 Tabernetan ibiltzen naiz lagunekin.
- 2 - Bai, arazoa badago. Larunbatero mozkortuta dauden gaztiak ikusten dituzu. Ondo pasatzeko edaten dela esaten da baina kalia botata ibiltzia ez dot uste ondo pasatzia danik.
- 3 Bai. Ondo iruditzen jata; zerbait egin bihar da gaztiekin hainbeste edan ez dezaten.
- 4 - Prezioa merkeagoa izatea izan leike irtenbide bat, baina neretzat tabernetakuak ere parte hartu biharko zeben, nahiz eta erreza ez izan ze, euren negozioa da.
- 5 Ez da erreza alternatiba bat jartzia ze edozer antolatuta ere jendiak ez dau parte hartzen normalian, poteatzia nahixau izaten dau. Baina Gaztetxe bat ondo egongo zan.





## Garajeak

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean.  
**l:** 74 00 70 Iñaki

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.  
**2r** 74 39 19

GARAJE ITXI BAT alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta baxua jotzeko. Lehenbailehen.  
**Tr** 74 22 70 Igor  
 Gaeuz 9etatik 10etara

## Salerosketak

GIMNASIA EGITEKO BANKO BAT SALTZEN dut. Abdominalak, arrauna, e.a.... egiteko balio du.  
**Tr** 74 29 52  
 Gaeuz 8-10etara

EKONOMIKA BAT saltzen da. Labe eta guzti. Berria.  
**Tr** 74 09 86  
 Deitu arratsalde 8,30etatik aurrera.

"Ingeles" tipoko KOTXE KAPOTA erdiberria, eta MOISES BAT salgai ditut.  
**l:** 74 10 42

NINTENDOKO BI ZINTA saltzen ditut: Goonies ii (3.500 pta) eta Super Mario Bros 3 (4.995 pta).  
 74 36 80 Aser  
 Gaeuz deitu

AKORDEOI BAT erosiko nuke. Botoiduna.  
**12** 74 00 78  
 Deitu eguerdian edo gauean

## Lana

PSIKOLOGIARI KIZENTZIATUA naiz eta OHoko klaseak ematen ditut. Emaizta onak  
**Tr** 74 14 14

Idazkaria eta enpresarialesen diplomatua, informatika ezagupenekin edozein ofizina lan egiteko prest dago salmenta ezik.  
**Tr** 74 39 89 (Mari Karmen)

HAURRAK ZEIN NAGUSIAK ZAINDUKO NITUZKE. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.  
**Tr** 74 21 88 Pilar

Neska euskaldunak ETXEKO LANAK egin edota HAURRAK ZAINDUKO lituzke.  
**Tr** 10 06 23

Klase PARTIKULARRAK ematen diet OHoko haurrei.  
**17** 74 28 53 Lorea

HAURRAK ZAINDU eta ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Astelehentik ostiralera.  
**\*Tr** (94) 682 78 18 Iratxe

TITULUDUN ERIZAIN euskaldunak gaixo edo pertsona nagusiak zainduko lituzke gaeuz edo eguez, etxean edo ospitalean.  
**Tr** 74 02 33 Marta. Goizez

MARRAZKETA TEKNIKOKO klaseak ematen dira. COU, UBI, IMH, LHI.  
**s** 74 17 60 Ifiaki  
 74 34 01

PERFUMEAK SALTZEKO jendea behar da. Informazio gehiagorako deitu:  
**ir** 75 10 07  
 4etatik aurrera

ETXEKO LANAK, EGIN ETA NAGUSIAK EDO HAURRAK ZAINTEZKO pret nago.  
**13** 74 32 57 Maria Eugenia

HAURRAK ZAINDUKO GENITUZKE, astegunetan arratsalde eta astebukaeretan egun osoz eta gaeuz.  
**'S** 74 09 85 Nuria/Ana

TITULUDUN PELUKERAK lan egingo luke Elgoibarren. Asteartetik larunbatera. Esperientzi a dut.  
**75** (94) 682 78 18 Iratxe

## Etxebizitza

ETXE BAT ALOKATU EDO SALTZEN DUT Torrevejan (Alicante). Bungalow. Altzariak eta garajea.  
 74 24 26 Domingo

ETXE BAT ALOKATUKO nuke. Ez da handia izan behar. Ez zait axola non.  
**zr** 74 44 04 Ana (Gaeuz)  
**Tr** 12 16 02 Maite (Goizez)

Elgoibarren PISU BAT KONPARTITZEKO lagun baten beharrea gaude.  
 65 38 76 Olatz

PISU BAT SALTZEN DA Mutrikun. 115m<sup>2</sup>, itsasora begira eta gela guztiak kanpoko aldera ematen dute.  
**15r** 60 41 20  
 Arratsalde 8etatik aurrera

## Bestelakoak


Perla urdinak dituen PULTSERA BAT galdu dut. Aurkitzen duena saritzeko prest nago.  
**a** 74 05 74 Maite

2. BBBko GEOGRAFIA LIBURU BAT GALDU NUEN hilaren 4ean Liburutegian. Gaztelaniazkoa. Topatu duenak deitu.  
 74 21 86ra.

CARITASek BUTANOZKO SUKALDE BAT eta erropak gordetzeko ARMARIO BAT behar du.  
**7a** 74 12 57  
**15** 74 15 09

BI GILTZ SORTA aurkitu dira Aterpe tabernan.  
**'n**\* 74 25 95

## PREMAZKO TATUONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
 Larrialdiak..... 461111  
 Txanda hartzeko..... 743354  
 Planning ..... 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . 464622  
 Gurutze Gorria ..... 743864  
 Mendaroko Ospitala 756264  
 Drogomenpekotasun Z.. 741008  
 Odol Emailak ..... 743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak..... 740442  
 PESA (Eibar)..... 112131  
 Taxi Geltokia ..... 740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .... 744366  
 Kirol Zerbitzua ..... 744415  
 Kultura Zerbitzua ..... 742158  
 Mendaroko Udala ... 756100  
 Ongizate zerbitzua .. 743736  
 Udaletxea ..... 741050  
 Udaltzaingoa ..... 741394

### BESTELAKOAK

Caritas ..... 740142  
 Elgoibarko Izarra..... 741626  
 IMI ..... 741196  
 Kontsumo Bulegoa ... 743088  
 Liburutegia ..... 743525  
 Musika Eskola ..... 742145  
 Mintxeta ..... 744315  
 Parrokia ..... 740842  
 Polikiroldegia ..... . 741361  
 Postetxea ..... 741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza... 740296  
 Zaharren Biltokia ..... 740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola ..... 74 08 79  
 I.M.H. .... 74 41 32  
 Institutua ..... 74 02 67  
 Ikastola ..... 74 44 41  
 L.H.1 ..... 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea ..... 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN ..... 74 41 12  
 El Diario Vasco ..... 74 40 73  
 El Mundo ..... 74 22 67  
 E[ Correo Español .. 74 10 82  
 Egin ..... 11 84 21  
 Deia ..... 74 11 57  
 Zazpiki ..... 74 34 74

## **Fil** OSTIRALA

**19,30. 22,15 ZINEA**  
"Forrest Gump"

## **19** LARU NBATA

**10,30** ESKOLARTEKO ATLETISMO  
TXAPELKETA

✓ Mintxetan  
Antolatzailea: Txankakua-Mintxeta  
Atletismo Taldea

**10,30** KARAKATERA 1GOERA

✓ Irteera Plaza Handitik  
Antolatzaileak: Urgazi eta Morkaiko

**19,30** UDAL TXISTULARI  
TALDEAREN KONTZERTUA

/ Udaletxeko arkupeetan

**19,30 • 22,15 ZINEA**

"Forrest Gump"

## **20** IGANDEA

**08,00** ARALARRERA MENDI  
IRTEERA

✓ Plaza Handitik  
Antolatzailea: Morkaiko

**16,00** NAZIOARTEKO IV. XAKE  
TXAPELKETA

/ Kultur Etxean  
Antolatzaileak: Udala, Zubi Ondo  
Elkartea eta Euskal Xake Federazioa  
**Partidak egunero 4etatik 10etara**  
bitartean jokatu dira hilaren  
28ra arte.

**16,30** Z1NEA

"Relampago Jack"

**19,30. 22,15 ZINEA**

"Forrest Gump"

## ASTELEHENA

**19,30** INAZIO BEREZIARTUA  
MUSIKESKOLARE N  
KONTZERTUA

/ Herriko Antzokian

**22,15 ZINEA**

"Forrest Gump"

## **22** ASTEARTEA

**54144 20,/yZtt4 eftth4**

**08,30** IKASTOLAKO HAUREN  
KALEJIRA

✓ Plaza Handitik

**16,30** IKASTOLAKO HAUREN  
KALEJIRA

**18,00** IKASTOLAKO 8. MAILAKO  
HAUREN KONTZERTUA

✓ Kaleetan zehar

**20,00** ITXAROPENA  
ABESBATZAREN KONTZERTUA

✓ Udaletxeko arkupeetan

**22,15 ZINEA**

"Relampago Jack"

✓ Herriko Antzokian  
(Ikuslearen eguna)

## **23** ASTEAZKENA

**08,15** JUBILATUEN TXANGO  
BAIONARA

/ Plaza Handitik  
Antolatzailea: Zaharren biltokia

## **17,11** OSTEGUNA

**17,00** HITZALDIA

**Gaia: Lan sistema taldean**  
Hizlaria: Opel etxeko ordezkariak  
✓ IMHn  
Antolatzailea: Gestio Eskola

**22,15 ZINEA**

"La Frontera"

✓ Herriko Antzokian  
Sarrera: 200 pta.  
Antolatzailea: Gestorak

## OSTIRALA

**19,30** HITZALDIA

**Gaia: Presoen egoera eta torturak**  
Hizlaria: Torturen Aurkako  
Taldeetako mediku bat.  
✓ kimetz Elkartean  
Antolatzailea: Gestorak

**19,30. 22,15 ZINEA**

"Cuatro bodas y un funeral"  
s/ Herriko Antzokian

## txandak

### FARMAZIAK:

19, larunbata: Etxeberria  
20, igandea: Etxeberria  
21, astelehena: Ormazabal  
22, asteartea: Ormazabal  
23, asteazkena: Ormazabal  
24, osteguna: Ormazabal  
25, ostirala: Yudego

### OKINDEGIA:

20, igandea: EIZAGIRRE

## ZINEA

### FORREST GUMP

**Zuzendaria: Robert Zemeckis**  
**Antzezleak: Tom Hanks, Robin**  
**Wirght, Gary Sinise.**

Forrest Gump gainontzeko mutikoak baino motzagoa da inteligentzia koefizienteari dagokionean. Korrika egiten ordea, inor baino azkarragoa da. Abilidade honek bizitzan arrakasta izaten lagunduko dio. Rugby taldeko jokalaria izango da, Vietnameko gerran domina bat irabaziko du, Kennedy eta Nixon presidenteak ezagutuko ditu eta Elvis Presley eta John Lennon abeslariak ere bai. Bere bizitzaren euskarriak bere ama eta Jenny izango dira. Urteetan zehar, Jennyrekiko maitasuna senclotzen joango da, Jennyk bizitza erabat ezberdina izan arren.

# idARRAGA

KAFEAK

KAFETEGIA eta OKINDEGIA



## BOLINTXOKO

OGIAK GURE LABEETAN

EGINDA ESKAINIKO

DIZKIZUGIT



*Datorren astean  
zabalduko dugu.*

**Zatoz!**

*Ogi bat eta gozoak  
oparituko dizkizugu.*

## Bolleria

## Okindegia

## Egunean erretako kafea



OPERA

RECIBO DE PAGO DE LA SUSCRIPCIÓN DE LA OBRA DE RECONSTRUCCIÓN DE LA PLAZA DE TRABAJO (delos de Trabajo) PUBLICATIONS PERIODICAS

EGIZU KEINU NATURALA

*Ez zaizu ezer kostatzen*



*Izugarri balio du*



DEBA BEHEKO  
MANKOMUNITATEA

MANCOMUNIDAD  
DEL BAJO DEBA



Gipuzkoako Forat Aldundia  
DiputaeitIn Forat de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugno Departamenlua  
Delulamento de Obras Hidraulicas y Medio Ambiente